

noticias de Gipuzkoa

Diario de Noticias de Gipuzkoa. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

Oarsoalde a-Buruntzaldea

Hernanik igandean zabalduko du txotx denboraldia 'Kontrako Eztarria' saioa omenduz

12.30ean kupelak irekiko dira Gudarien plazan

Sagardotegietara joateko autobus zerbitzua ipiniko da eta Lurraldebusekin ordaindu ahalko da

Aitziber Muga - Jueves, 9 de Enero de 2014 - Actualizado a las 06:08h



Txotx Batzordeko kide batzuk, atzoko agerraldian, herriko hamabi sagardotegien botilekin. (argazkia: a.m.)

Hernani. Datorren igandean Hernaniko txotx denboraldi berriaren inaugurazio ekitaldia burutuko da, atzo Txotx Batzordeak agerraldi batean jakinarazi zuenez. Horretarako egun osoko egitaraua prestatu da. Aurtengo omendua *Euskal Telebistako Kontrako Eztarria* umore saioko taldea izango da.

Ekitaldiak 11.00etan hasiko dira suzirikin eta udaletxeko arkupetan Apaxi ipuin kontalariak eskainiko duen istorioarekin. Ordu berean trikitilariak herriko kaleetan ibiliko dira 11.45ak arte. Errelebua udaletxeko arkupetan egongo diren txalapartariak hartuko dute.

12.00etan Kalek Kale Kantari ekimena Plaza Berriatik abiatuko da eta kalejiran Gudarien plazaraino iritsiko da. Orduan, 12.30ean, ekitaldi nagusia hasiko da: txotx irekiera, Xabier Euzkitze, Anjel Alkain, Iker Galartza eta Jon Plazaola aurkezle eta aktoreekin.

Alkateak "elkarbizitza bermatzen duten arauak" errespetatzea eskatu die bisitari eta bertakoei

Eguna borobiltzeko 14.30ean Larre-Gain sagardotegian bazkaria egongo da eta arratsalde partean, 18.30etik 20.30era, Plaza Berrian erromeria antolatuko da. Eguraldi txarra egingo balitz, ekintza hau Atsegindegian egingo litzateke.

Hernaniko alkateak, Luix Intxauspek, txotx denboraldia herriko sagardotegi eta sagardoak ezagutu eta dastatzeko garaia dela adierazi zuen, "sustrai sendoak dituen ohitura ezagutzeko aukera ezin hobea, baina beti ere elkarbizitza bermatzen duten arauak errespetatuz".

Beste urtetan egin den moduan, Udalak aurtun ere neurri bereziak hartuko ditu. Udaltzaingo zerbitzua handitu eta egokituko da, ordutegi zehatzetan udaltzain kopurua gehituz eta erdigunean behin-behineko komun publikoekin bi gune ezarriko dira.

Aparkalekuari dagokionez, kanpotik datozen autobusak Ibaiondo poligonora bideratuko dira eta autoentzat Karabel auzoan dagoen 280 plazako doako aparkalekua gomendatzen da, han igogailu publiko bat baitago erdigunera gerturatzeko. Bestalde, herri barruko autobusak sagardotegietarako zerbitzua eskainiko du eta berrikun-tza modura Lurraldebus txartelarekin ordaindu ahalko da.

Cargando comentarios...



Haz tu comentario

[Condiciones de uso](#)

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Noticias de Gipuzkoa se reserva el derecho a eliminarlos.

Escribe tu comentario

introduce tu comentario

ComentariosNúmero de caracteres (500/500)